



GIPUZKOA



ETA EUROPAR BATASUNA

113. INFORMAZIO BULETINA

> 2016ko Uztaila-Abuztua



Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenarako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

GIPUZKOA



NABARMENDU BEHARREKOA

> **Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa Departamentuak antolatutako "Lurraldeen erresilientzia" ikastaroak Europako Batzordearen Hiriko eta Eskualdeko Politikaren Zuzendaritza izango du**

Irailaren 12an eta 13an egingo da "Lurraldeen erresilientzia" udako ikastaroa. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuna eta Lurralde Antolaketa departamentuak zuzenduta, ikastaroaren helburua gaur egun Pasaiaiko portuan dagoen egoerari aplikatu dakizkiokeen hiriaren eraberritze kasu desberdinak ezagutu eta aztertzea da.

Ikastaroan nazio mailako eta nazioarteko adituak egongo dira. Azalpenak emango dituzte eta aztertuko dute Pasaiaeren antzeko egoeran dauden lurraldeek nola lortu duten krisi-egoeretatik aurrera ateratzea eta nola lortu duten eraberritzearen arazoari irtenbidea ematea. Horretarako, hiria eraberritzeko kasu desberdinak, Europako Batzordeen politika berritzaileenak, eta portuko kudeaketa-modu desberdinak eta portuaren eta hiriaren arteko harremanak aztertuko dira.

Ildo horretatik, Europako hiri-agenda ezagutzeko aukera izango da Nicolas Gharbi-ren, Eskualdeko Politikaren Zuzendaritza Nagusiaren analistaren, eskutik. Europar Batasuneko ordezkaria da, Espainiarako hiri-garapen sozial eta inklusiboaren politikak (DUSI deialdia) aztertzearen arduraduna. Gipuzkoako Foru Aldunditik ildo hori ari dira jarraitzen Pasaiaiko badian. Ikastaroan Daan Schalck ere bertan egongo da, Ganteko portuko zuzendaria, alegia. Bera izango da Ganteko Portuko portuaren eta hiriaren arteko harreman-ereduaz hitz egitearen arduraduna. Udal-izaera duen erredua da, eta bertan, portuak garapen ekonomiko eta sozialaren gidari, eta enpresa-gune gisa jarduten du.

Ikastaro honen bidez, Gipuzkoako Foru Aldundiak antzeko beste proiektu batzuei buruzko ezagutza hurbildu eta zabaldu nahi du, ideiak eta esperientziak eskainiz, hiria eraberritzeko prozesuan eta prozesu sozio-ekonomikoan kokatuta. Bertan, herritarrak inplikaturik daude eta hauetan oinarritutako triangelua sortzen dute: hiri garbia, produktibo-lehiakorra eta inklusiboa, Pasaiaiko Badian; gainera, Kohesio Politikaren Europako funtsek zeregin honetan egin dezaketen ekarpena sustatu nahi du.

Informazio gehiago:

<http://www.sc.ehu.es/scrwwsu/index.htm>



> **Gipuzkoako berdintasun-politiketan arreta jarri du Europak jarraitu beharreko eredu gisa**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berdintasun zuzendariak, Miren Elgarrestak, EIGEn, Genero Berdintasunerako Europako Institutuko lan-jardunaldian, Vilnan (Lituania) egoitza duenean, hartu du parte abuztuaren hasieran bi erakundeen artean erakundeen arteko elkarlana estutzeko.

Berdintasun-zuzendariak oso balorazio positiboa eman dio Genero Berdintasuneko Europako Institutuko ordezkariekin izandako bilerari eta bi erakundeek partekatatu duten sintonia nabarmendu du.

Gipuzkoako Foru Aldundiak erakunde arteko elkarlan horretan sakontzearen aldeko apustua egin du, betiere, elkarlanari esker bi erakundeek genero-berdintasuneko politiketan aurrera egin dezaten.

Genero Berdintasunerako Europako Institutuko zuzendari nagusiak, Virginija Langbakk-ek, ere elkarlana txalotu du eta Gipuzkoak egindako lana nabarmendu du; izan ere, berdintasun-politiketan oso lurralde aurreratua izatea lortu du, eta askotan, Europarentzako eredu izatea.

EIGetik Gipuzkoako Foru Aldundiak azken urtean Institutuaren "Gender mainstreaming" programaren bidez egin duen ekarpena aitortu du. Hain zuzen ere, berdintasun-politiken zeharkakotasunean sakontzeko neurri eraginkorrak aztertzen dituen National Secomdment Espext (SNE) adituen taldearen osaeran lagundu du.

Informazio gehiago:

http://www.gipuzkoaberri.net/WAS/CORP/DPDOficinaPrensaDigitalWEB/nota/eu/2880/europa-fija-politicas-igualdad-gipuzkoa-como-modelo-seguir&anti_cache=1473251296651



> **Gipuzkoako tokiko erakundeak trukatzeko senidetzeak sustatzeko Elkarrekin laguntza-programaren ebazpena argitaratu da**

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Gobernantza eta Gizartearekiko Komunikazioa departamentuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko irabazi-asmorik gabeko erakundeak eta tokiko erakundeak trukatzeko senidetzeak sustatzeko Elkarrekin programarekin lotuta joan den martxoan deitutako diru-laguntzak ematea erabaki du.

ELKARREKIN programak Gipuzkoako udalerriak bultzatu eta lagundu nahi ditu udalerrietako interes sozialei, kulturei eta ekonomikoari nahiz interes edo lotura komunak dituzten beste udalerririk batzuekin dituzten harremanei zuzenean mesede egiten dieten jarduerak egin ditzaten.

Informazio gehiago:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/castell/bog/2016/07/18/c1605178.htm>

<http://www.kanpoharremanak.net/jarduerak.php?op=8>



KOHESIO-POLITIKA

> Eslovakiak hartu du Kontseiluaren Presidentetza onartu du urteko bigarren sei hilabeterako

2016ko uztailaren 1etik aurrera, Eslovakia Herbehereen ondorengoa izan da Europar Batasuneko Kontseiluaren Presidentetzan.

Onartutako programarekin bat etorritik, Eslovakiako presidentetza hauetan ahaleginduko da: EBko batasun ekonomikoan eta moneta arloko batasunean sakontzen; EBn ekonomia digitalari trabak kentzen; EBko kanpo mugen babes-politika aplikatzen migrazio-gaiak lantzeko helburuarekin; eta EBko hedapen-prozesua babesten.

EBko Estatu kideek Kontseiluaren Presidentetza onartzen dute sei hilabeteko txandetan. Sei hilabeteko batean, txandako Estatuak izango da saioen burua Kontseiluaren maila guztietan. Horrela, erakunde horretako EBren lanaren jarraikortasuna bermatuko du.

Presidentetzan jarduten duten Estatu kideak hiruko taldeetan aritzen dira zorrotz lanean, "hirukoak" izenekoetan 2009tik. Hirukoak epe luzera ezartzen ditu helburuak eta programa komuna egiten du Kontseiluak 18 hilabeteko epean egin beharko dituen gaiak eta gai nagusiak erabakiz. Egungo hirukoa Herbehereetako, Eslovakiako eta Maltako presidentetzek osatzen dute.

Informazio gehiago:

<https://sk16.eu/m2/fr.html>



> **Batzordeak bi finantza-tresna berri jarri ditu martxan enpresa sortu berrietan eta hiri-garapen iraunkorretan inbertsioak bultzatzeko**

Europako Batzordeak bi Finantza Tresna berri aurkeztu ditu Europako Egituren eta Inbertsioen Funtsen Inbertsioetarako, betiere, enpresa gazteei eta hiri-garapeneko proiektuen sustatzaileei finantzaziorako sarbidea errazteko helburuarekin.

Koinbertsio-mekanismoak, sortu berri diren enpresei eta ETE-*ei* finantzazioa eskaintzen dienak, negozio-ereduak garatzeko eta aparteko finantzazioa atzemateko aukera emango die finantza-bitartekari nagusi batek kudeatutako inbertsio kolektiboko sistemaren bidez. Guztizko inbertsioa, baliabide publikoak eta pribatuak konbinatuz, ETE bakoitzeko 15 milioi euro artekoa izan daiteke.

Bigarren tresnari, hiri-garapeneko proiektuak sustatzera bideratuta dagoenari, dagokionez, EIE Funtsetako baliabideekin eta gutxienez kapital pribatuaren % 30eko ekarpenarekin finantza-bitartekariak kudeatutako mailegu-funtsaren forma hartuko du laguntzak. Proiektuek, finantza-ikuspegitik, bideragarriak izan behar dute eta hiri-garapen iraunkorreko estrategia integratuan txertatuta egon beharko dute. Guztizko inbertsioa, baliabide publikoak eta pribatuak konbinatuz, proiektu bakoitzeko 20 milioi euro artekoa izan daiteke.

2014-2020 aldian, Batzordeak Estatu kideak animatu ditu beren inbertsioak Europako Egituren eta Inbertsioen Funtsetan (EIE Funtsak) bikoiztu ditzaten. Finantza-tresnen bidez egingo dira inbertsioak, esate baterako, maileguak, kapitala eta bermeak, inbertsio-planaren helburuekin bat etorritik.

Informazio gehiago:

http://europa.eu/rapid/press-release_IP-16-2448_es.htm



EUROPA 2020 ESTRATEGIA

> Europak hobera egin du berrikuntzan eta Japoniara eta Estatu Batuetara hurbildu da

Berrikuntza-adierazleen eta Innobarometroaren Europako Koadroetan eguneratutako eta txertatutako azken datuekin bat etorri, Europar Batasunaren berrikuntza Japoniakora eta Estatu Batuetakora hurbiltzen ari da.

Herrialde kideen artean, Suedia da ostera ere berrikuntzan liderra; Danimarka, Finlandia, Alemania eta Herbehereak datoz ondoren.

Berrikuntza arlo jakinetan, hauek dira EBren buruak: Suedia: giza baliabideak ea ikerketa akademikoaren kalitatea; Finlandia: finantza arloko baldintzak; Alemania: inbertsio pribatua berrikuntzan; Belgika: berrikuntza-sareak eta elkarlana; Irlanda: berrikuntza enpresa txiki eta ertainetan.

Berrikuntzak bizkorren aurrera egiten duen herrialdeak hauek dira: Letonia, Malta, Lituania, Herbehereak eta Erresuma Batua.

Berrikuntza moderatuko herrialdeetan berrikuntzako eskualde-nukleoak ere badaude: Piamonte eta Friul-Venezia Julia Italian, Euskal Herria Espainian eta Bratislava Eslovakian.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/es/newsroom/news/2016/07/14-07-2016-innovation-performance-compared-how-innovative-is-your-country



> Extremadura, Austria Behea eta Mendebaleko Grezia izan dira Europako Eskualde Ekintzailearen 2017ko sariaren irabazleak

Eskualdeetako Europako Batzordeak ematen duen eta enpresa-ikuspegi lehiakorragatik eta etorkizun handikoagatik nabarmentzen diren Europako eskualdeei ematen zaien Europako Eskualde Ekintzaileari emandako saria, edizio honetan, eskualde hauetarako izan da: Extremadura, Austria Behea eta Mendebaldeko Grezia.

Eskualde sarituek epe luzera enpresa txikiak eta ertainak sustatzeko estrategia politikoak aurkeztu dituztelako lortu dute saria. Horrez gain, 2017. urterako aurkeztutako ekintzailetza-planen sinesgarritasuna ere tartean egon da.

Informazio gehiago:

<http://cor.europa.eu/es/takepart/eer/Pages/eer.aspx>



DOKUMENTU INTERESGARRIAK

> Egitura Funtzen eta Inbertsio Funtzen Open-Data plataforma (DG Regio)

Egitura eta Inbertsio Funtsei buruzko Europako Batzordearen Hiriko eta Eskualdeko Politika Zuzendaritzaren datu irekien plataforma (open-data) eguneratu dute datu eta aplikazio berrieekin..

Gaur egun, plataformaren bidez, 2014-2020 533 programa eragileen informazio zehatzetarako sarbidea dago, baita ohiko adierazleetan oinarritutako finantzazioa eta esperotako lorpenena ere. Unera arte onartutako programen finantza-egoeraren informazio eguneratua ere eskaintzen du.

Informazio gehiago:

<https://cohesiondata.ec.europa.eu/>

> Pomeraniak biderik adimentsuena hartu du (Panorama aldizkaria 57.zbk., DG Regio)

Panorama aldizkariak Pomerania eskualdeari (Polonia) buruzko aurreikuspen xehatua eskaintzen du. Kohesio-politikari esker eskualde hau aurre egin beharreko erronkak nola ari den gainditzen, horri buruzko ikuspegia eskaintzen du eskualdeko mariskalarekin egindako elkarrizketak, proiektuen zenbait adibidek eta benetako informazioak.

Aldizkariak Eskualdeen eta Hirien Europako Asteari egindako erreferentziak barne hartzen ditu, aurtengo urteko edizioko gaiak eta ekitaldiak aurkeztuz. Sinplifikazioari buruz Maila Altuko Taldearen lanari egindako ekarpenak ere barne hartzen ditu, baita Interact programa eta Eskualde Adriatikorako eta Joniako Eskualderako EBKo estrategia ere.

Informazio gehiago:

http://ec.europa.eu/regional_policy/sources/docgener/panorama/pdf/mag57/mag57_en.pdf



> Euskadi EB-28n: Euskadiko autonomia erkidegoko per capita gastu sozialak EB-28ko herrialdeen batez bestekoa gainditzen du (Eustat)

Eustat – Estatistikaren Euskal Institutuak argitaratutako informazio estatistikoaren bildumaren eguneratze berria. Horren bidez ematen da ezagutzera Euskadik Europar Batasuneko testuinguruan duen posizioa.

Une honetan argitaratutako eta gastu sozialari erreferentzia egiten dioten datuekin bat etorritik, gastuak, Euskadin, 8.128 PPCra egin du gora, eta Espainiakoa baino % 35 inguru altuagoa da. EB-28rekin lotuta, 2012ko Eustaten eta Eurostaten azken datu eskuragarrien arabera, Euskadiko gastu sozialak (7.883) ere eremu honetako herrialdeen batez bestekoa gainditu zuen (7.618).

Babes sozial per capita izandako gastuak % 11,1 egin du gora 2009-2013 aldian. Aldiz, Espainian % 2,9 egin du gora.

Informazio gehiago:

http://eu.eustat.eus/elementos/ele0013600/ti_Euskal_AEko_per_capita_gizarte_gastua_28-EBko_estatuen_batez_bestekoaren_gainetik_da/tema_198/tipo_1/not0013609_e.html#axzz4JZYLu0Vp



> **Akitania-Euskadi euroeskualdeko lehenetsitako klusterren, aurre-klusterren & Lehiakortasun-guneen kartografia (Bihartean)**

Akitania-Euskadi euroeskualdearekin sinatutako BIHARTEAN hitzarmenari esker, mugaz gaindiko Merkataritza Ganberak Akitania Berriko, Euskadiko eta Nafarroako lurraldeetan dauden lehenetsitako Klusterren, aurre-klusterren eta lehiakortasun-guneen kartografia argitaratu du.

Kluster edo Lehiakortasun-gune bakoitzak fitxa bat aurkezten du estalitako jarduerarekin, bazkide eta enplegu kopuruarekin eta harremanetarako datuekin.

Maparen helburua (lurraldeko hiru hizkuntza ofizialetan eskuragarri) lurralde komunean dauden dinamika ekonomikoen ikuspegi orokorra eskaintzea da, baita Klusterren artean elkarrekiko ezagutza erraztea ere.

Egindako mapak hiru lurraldeetan banatutako 74 kluster, eta lehenetsitako 36 kluster eta lehiakortasun-gune erakusten ditu guztira. Horrek esan nahi du 110 erakunde ekonomiko daudela 15.000 enpresa inguru eta 1,4 milioi enplegu ordezkatzuz.

Informazio gehiago:

<https://www.google.com/maps/d/u/0/viewer?hl=fr&mid=1XI3GKStuTWTNcvmVQgUyMJawpww>



> **Berrikuntzari buruzko datu estatistikoak Europa 2016an. Berrikuntza nazionaleko, eskualdeko eta Innobarometroko adierazleen Europako koadroak (Europako Batzordea)**

Berrikuntzako adierazleen Europako Koadroaren urteko edizioak EBko herrialdeen eta aukeratutako hirugarren herrialdeen ikerketaren eta berrikuntzaren errendimenduaren ebaluazio alderagarria eskaintzen du. 2016ko txostenak lehen aldiz barne hartzen du bilakaera berrian, joeretan eta aurrez ikusitako aldaketetan oinarritutako sekzio prospektiboa.

Eskualdeko berrikuntzaren adierazle-koadroa berrikuntzaren adierazleen Europako Koadroaren eskualdeko luzapena da. Bertan, Europako eskualdeen berrikuntzaren errendimendua ebaluatzen da.

Innobarometroak EBko herrialdeetan, Suitzan eta Estatu Batuetan berrikuntzarekin zerikusia duten enpresen jardueran izan berri diren joerak eta jokabideak adierazten ditu.

Informazio gehiago:

<http://ec.europa.eu/growth/industry/innovation/facts-figures/scoreboards/>

http://ec.europa.eu/growth/industry/innovation/facts-figures/regional_en

http://ec.europa.eu/growth/industry/innovation/facts-figures/innobarometer_en



EUROPAKO DEIALDIAK

Jarraian, Gipuzkoatik interesgarriak izan daitezkeen eta azken hilabeteen argitaratutako deialdi nagusiei egindako erreferentziak biltzen dira. Deialdiak aukeratzeko orduan, irizpide gisa hartu dira horien gaia, hautagaitzak aurkezteko epea, egokitasuna eta hautagaiak izan daitezkeen eragileen aukeragarritasuna.

- **HORIZON2020 deialdia. Nanoteknologiak, material aurreratuak, bioteknologia eta ekoizpena (Programak: BIOTEC-06-2017-IA, BIOTEC-05-2017-RIA, BIOTEC-07-2017-RIA) (+ [info](#))**
- **HORIZON2020 deialdia. Industria 2020 ekonomia zirkularrean (Programak: PILOTS-04-2017-IA, PILOTS-05-2017-RIA, PILOTS-03-2017-IA) (+ [info](#))**
- **HORIZON2020 deialdia. Energia-eraginkortasuna (Programak: EE-01-2017-IA, EE-04-2016-2017-IA, EE-07-2016-2017-IA, EE-12-2017-IA, EE-17-2016-2017-IA, ekintza berritzailea) (+ [info](#))**